



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO ZUZENDARITZA POSTURAKO HAUTAGAITZA DEIALDIA



Euskal kultur erakundeak zuzendari bat bilatzen du, denbora osoz, iraupen mugagabea, 6 hilabeteko proba garai batekin.

Hasiera: 2021eko otsailaren 1a.

Arduradun estatusa – Lansaria Animazio sozio-kulturalaren Hitzarmeneko taulen eta lan esperientziaren arabera.

POSTUAREN EZAUGARRIAK

Elkarteko administrazio kontseiluaren eta bere lehendakariaren agindupean, zuzendariaren eginkizun nagusia izanen da: **urteko kultura egitasmoaren ekoiztea eta administrazio kontseiluari aurkeztea. Honek onetsi-eta, lantaldeak gauzatuko duela zainduko du, aurrekontu onetsiaren norabideei jarraikiz.**

Kultura, ondarea eta zientzia proiektuak lurraldearen ezaugarriak, arteen demokratizazioa eta kultura eskubideak, kultura eta arte jardueren aniztasuna eta lurralde-parekotasuna kontuan ukanen ditu; erakundearen politikekin bat eginen du eta haien eskumeneren osagarri izanen da.

EGINKIZUNAK

1. Kudeaketa eta harreman instituzionalak

- Lantaldearen (8 pertsona), ikastun eta lan-kontratu mugatuko langileen kudeaketa;
- Administrazio kontseiluko kide eta lehendakariarekiko harremanak: administrazio kontseilu, biltzar nagusi eta erakundeaz kanpoko egituretan aktiboki parte hartzea;
- Erakunde publikoekiko harremanak eta ordezkaritza segurtatzea (Pirinio-Atlantikoetako Departamendua, frantses estatuaren zerbitzuak, herriak, Euskal hirigune Elkargoa, Akitania-Berria Eskualdea, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu, etab.); komunikabideekiko harremanak;
- Administrazio eta kontabilitate segipena (kontabilitate arduradunarekin lankidetzan);
- Diru iturri berrien xerkatzea (adibidez Europako funtsak).

2. Lantaldearekin obratu proiektuen garapena

- EKE-ren proiektu berritzaileen obra-agintaritza: proiektuak Euskal Herriko eta haraindiko partaideekin sarean garatzeko ahalmenarekin (oholtza labeldunak, elkarte sareak, lurraldeko erakundeak, etab.); mugaz gaindiko proiektuen segipena (Hego Euskal Herriko hiri, aldundi eta bestelako kultura egiturekin);
- « Euskal Etnopoloa » labelaren urte anitzeko programaren garapena, « zientzia eta unibertsitate ikerketa » eta « Sorkuntza » ataletan, partaide berriak xerkatuz bezainbat gaitasunak partekatuz, eta, lurraldeen eskalan, kultura eta ondare eragileekiko lankidetzak azkartuz (euskal Etnopoloaren arduradunarekin lankidetzan);
- Bitartekaritza numeriko edo digitalaren sendotzea, euskal kultura publiko ororentzat balioan ezartzeko eta gizarteratzeko, tresna berrien bidez (numerikoa sailaren arduradunarekin lankidetzan);
- Ondare eta kultura gaietan Europa eta nazioarte mailako lankidetzen garatzea.

3. Kultura eragile eta elkarten laguntzea

- Bazkide diren elkarte eta artisten laguntzea: proiektuen segipena, aholkularitza, etba.;
- Proiektu « egituratzaileen » sostengatzea, elkarte eta erakundeekin lankidetzan;
- Lurraldeko kolektibitateek euskal kultura mailan eramaten dituzten ekimenentzako aholkularitzaren egitea.

PROFILA

Gaitasunak

- Baxoa + 3 gutienez, eta 5 urteko esperientzia profesionala;
- Euskara eta frantsesa ahoz eta idatziz arras ongi menperatu behar; gaztelera eta ingelera menperatzea estimatuko da;
- Euskal kultura eta oro har, arte eta kultura arloetan ezagutza ukaitea;
- Kultura politika publikoen ezagutza;
- Lankidetzak antolaketarako gaitasunak (gogoeta estrategikoen eta prospektibaren egiteko egokitasuna, lan kolektiboen animatzeko erraztasuna, etab.);
- Enpresa/elkarte-kudeaketa gaitasunak (taldearen kudeaketa besteak beste, ordezkari, etab.);
- Kontabilitate eta finantza kudeaketa menperatzea.

Bertuteak

- Suhartasuna eta inplikazioa;
- Ekimen bultzatzailea eta proiektuen garapenean proposamenak egiteko gaitasuna;
- Harremanetarako prestutasuna, enpatia, arreta aktiboa, egokitze gaitasuna;
- Bitartekari izateko gaitasuna;
- Disponibilitate handia eta antolatzeko malgutasuna (ordezkari ugari, bereziki asteburuetan, partaideen ikuskizun, biltzar nagusi eta bestelakoetan);
- Publikoaren aurrean komunikatzeko eta hitza hartzeko gaitasuna.

Beste

- B gida-baimena nahitaezkoa;
- Oinarrizko tresna informatikoen menperatzea.

HAUTAGAITZA BIDEA ETA EGUTEGIA

Hautagaiek **motibazio gutun garatua** (3 orrialde gehienez) eta **CV zehatza** helarazi beharko dute « Konfidentziala » aipamenarekin, berantetik **2020ko uztailaren 10eko**, helbide honetara:

Euskal kultur erakundeko Lehendakari jauna

Lota Jauregia

64480 UZTARITZE

2020ko uztailaren 10etik goiti, administrazio kontseilu kidez osatu epaimahai batek hautagaitza txostenak aztertu eta hautagaien lehen zerrenda osatuko du.

2020ko uztaila amaieran: zerrendako hautagaiei txosten bat igorriko zaie urte anitzetako kultura garapenerako egitasmo bat egin dezaten (20 orrialde gorenez, bi hizkuntzatan), EKE-rentzat lan alor batzu proposatuz.

2020ko irailaren 30a: proposamenak gutunez eta e-postaz eskuratzeko azken epea.

2020ko urriaren lehen hamabostaldian: hautagaien aurkezpenen azterketa eta sailkapen baten egitea.

2020ko urriaren bigarren hamabostaldian: administrazio kontseiluak hautagaiak entzunen ditu eta ondotik, zuzendaria izendatzeko proposamena egingen du.

2021eko otsailaren 1a: funtzioaren hartzea.

Argibideak: 05 59 93 25 25 | info@eke.eus | www.eke.eus

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN AURKEZPEN OROKORRA

Euskal kultur erakundea (EKE) 1990ean sortu zen. Elkarateak (1901eko elkarte legekua) frantses estatuaren, Akitania-Berria Eskualdearen, Pirinio-Atlantikoetako Departamenduaren, eta Ipar Euskal Herriko 158 herriak biltzen dituen Euskal hirigune Elkargoaren laguntza eskuratzen du. Halaber, Eusko Jaurlaritzak laguntza eskaintzen dio mugaz gaindiko harremanentzat.

Uztaritzen kokaturik, Euskal kultur erakundeak euskal kulturaren gerizan, transmisioan eta hedapenean dihardu. Sorkuntza garaikidearen aldeko ekimenak sustatzen ditu.

Bere estatutuen arabera, EKE-ren eskuhartzea lehentasunez euskarazko ekintzetara bideratzen da.

Euskal kultur erakundeak, bazkide dituen 160 bat kultur elkarten bidez, « **kultura praktikazaleak** » eta **profesionalak laguntzen ditu**, ikusgarrigintza, literatura, ondarea eta arte bisualak bezalako arloetan. Konkretuki, elkarteei laguntza eta ingeniariak eskaintzen die. Gainera, euskal kulturaren alorrean, publiko desberdinen arteko bitartekaritza kulturalaz eta numerikoaz arduratzen da.

EKE proiektu garatzailea da, izan ondarean nola arte eszenikoetan, Euskal Herri osoan (ipar eta hego) eta atzerrian ere. Horretarako, hainbat lankidetzak plantan ezartzen ditu eragile hauekin: kultura egiturak (tokikoak, estatu mailakoak nola nazioartekoak), elkarateak, lurralde erakundeak.

Euskal kultur erakundea euskal kulturaren baliabide-gune bezala, eta bitartekaritza numerikoa lehenesten duen erakunde bezala ezagutua da. Zeregin garrantzitsua du mugaz gaindiko harremanetan, bereziki Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Foru Erkidego, hiri, aldundi eta kultura egiturekin hurbileko lankidetzak lehen lerroan emanez.

Euskal kultur erakundeak 2017an frantses Kultur ministerioarengandik « **euskal Etnopolo** » izendapena lortu zuen. Ondare etnologiko eta immaterialaren batzordeak 4 urterako (2017-2021) eman zion label hori, Euskal kultur erakundeak eta *École des Hautes Études en Sciences Sociales (EHESS)* eskolak osatu partzuergoari. Kultura ondare immaterialaren eremuan ikerketa, informazio eta kultura ekintzetan politika hoberenetarikakoa eramaten duten kultura erakundeei onartzen diete izendapen hori.

EKE-ren eginkizun eta ekintza gehiagoren argibideak: www.eke.eus